

## Familiok,

Kurtsoa amaitzera doa eta “katekesia etxean” ekimena ere amaitzear da. Berri onarekin amaituko dugu: “Mendekoste”. “Berri on” izan zarete, eta jarrera horrekin egindako ibilbideari merezi duen bukaera emango diogula uste dugu!!! Zorionak honaino iristeagatik!!!

Badakigu ez dela erraza izan eta bidean poztasun eta tristurak, adorez eta etsipenez beteriko unek, izan direna. Egundoko esperientzia bizi izan dugu zuekin batera!!!

“**Katekesia etxean**” jarduera honen helburu nagusia, Jesus gure familien bihotzean, gure etxeetan, gure txikienen artean agertzera ematen jarraitzea izan da. Helburu hori lortzeko bidean aurrera egin izango ahal genuen! **Ebaluatu bidaltzen dizugun estekan.**

Oraingo proposamen hau Elizbarruti osorako da. Geure formatuaz baliatuz, bat eginik hazten, otoitz egiten eta bi zi den Elkarte garelara islatu nahi dugu eta Mendekoste-eguneko ospakizuna horretarako egokitzen jotzen dugu!!!

Gure agurra kurtso amaierak, ondo egindako lanak dakarkigun pozarekin. Eta **opor zoriontsuak** opa dizkizuegu, opor desberdinak izango dira, baina zorionekoak izan daitezela!!!!


# “Katekesia etxean” egitasmoa

## Pentecostés

la Iglesia se pone en marcha



Ningún engranaje, sistema, método, estructura, congregación, delegación, grupo, movimiento, diócesis, sínodo, cónclave...funcionará si no se deja mover por el Espíritu






# JESUSEK ESKAINTEN DIZKIGUN BITARTEKOEN BILA

Pazko aldiko  
V. igandea



Pazko aldiko  
II. igandea



Pazko aldiko  
III. igandea



Pazko aldiko  
IV. igandea



Pazko aldiko  
VI. igandea




**MENDEKOSTE**



# MENDEKOSTE

## Jesusen Espiritua gurekin





# TARTETXO bat JESUSEKIN



Tartetxo bat hartu, lekua aukeratu eta eroso jarriko gara; kandela piztu eta Jesusen irudia, gurutze txiki bat, bihotza,... beraien zerbait... ipiniko dugu.

Haurrek egin duten igande honetako ebanjelioaren grabazioa eta entzundakoaren inguruan solasean jardungo dugu. Zer kontatu digun, zein galdera pizten digun... komentatuko dugu.

## Oharrak:

Joan den astean, Jesus agurtu egin zen, baina, beti bezala, ez gintuela bakarrik utziko esan zigun. Jesusek Espiritua uzten digu, ausardia, indarra, ilusioa, konfiantza... ematen digun Espiritua. Honek, Jesusek bezala, gidatu egiten gaitu.

Zertan nabaritzen duzu Jesus zeurekin dela? Nabaritzen duzu? Noiz? Nola laguntzen dizu zorioneko izaten eta besteak zorioneko egiten?

# ESKULANA: ELKARTEA - COMUNIDAD

GOGORATU,  
SORMENEZ  
JOKATU!



1. Marraztu **2 giza-kate** (**pertsonen siluetak**), **izenekin:** ezagunak, Jesusen adiskideak, parrokiakoak, elizakoak... Kontuz moztu, irudiak eskutik lotuta daudela.
2. **Idatzi errotuladorez:** EL-KAR-TE-A, CO-MU-NI-DAD, elkarturik dauden irudien besoetan, gora eta behera egiten duen lerroa izango balitz bezala.
3. Irudien erdian, **bakoitzak** elkarteari, parrokiari, Jesusen lagun-min izaten jarraitzeko **zer eska diezaiokeen** idatzi.
4. Ondoren, **lotu zeloz** bi kateak muturretatik, giza kate bakoitzak korroa egin eta zutik iraun dezan.



# OTOITZA –ORACION.

*Elkarrekin otoitz egingo dugu*

**KAIXO JESUS, ADISKIDE.**

**EZINBESTEKOA DUT ZURE ESPIRITUA POZTASUNA, ADOREA, ITXAROPENA, BAKEA, SENDOTASUNA EZ GALTZEKO ETA ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO.**

**EZINBESTEKOA DUT ZURE ESPIRITUA NIRETZAT ZER DEN ONA ETA ZER TXARRA, ZER EGIN BEHAR DUDAN ETA ZER EZ, EGUNERO NEURE ONENA EMATEKO ZEIN BIDE HARTU BEHAR DUDAN BEREIZTEKO. HORREGATIK, JESUS, ADISKIDE, EMAN ZEURE ESPIRITU SANTUA ZUK NAHI DUZUNA IZAN NADIN ETA ZUK AMESTEN DUZUNA EGIN DEZADAN.**

**Igandeetako ebanjelioak, Jose Real Navarro. A urtea. Haurrentzat.**



# BIDALI ZURE ARGAZKIA



Instagram

Lacateencasa



Bidali egindako lanaren argazkia katekesiko taldeari edo katekistari: eskulana, hitza-esaldia...